

201. araua

Euskal Herriko mendi-multzo nagusien izenak

Euskaltzaindiak 2025eko abenduaren 19an onartua, Baionan

Hainbat arau plazaratu ditu Euskaltzaindiak Euskal Herriko leku-izenak eta haien euskarazko erabilera finkatzeko ahaleginean. Haietako gehienak banaketa administratiboari dagozkio¹, baina badira geografia fisikoa jorratu duten beste arau batzuk ere². Izan ere, alor horretakoa da oraingo arau honek dakarrena, Euskal Herriko lurrazaleko erliebean identifika daitezkeen mendi-multzo nagusien izenak biltzen baititu.

Izen horien aldaerarik egokienak zein diren eta era horiek euskaraz noiz-nola erabili behar diren zehaztea beharrezko jo du Euskaltzaindiak. Izen horiek maiz agertzen dira kartografian, testuliburuetan, argitalpenetan, albistegietan..., eta ez da beti asmatzen izen egokiarekin, ezta izen horiek euskarazko testuinguruan txertatzeko moduarekin ere. Mendi-kiroletan aritzen den jende gero eta ugariagoaren eguneroko jardunean ere, sarritan erabiltzen dira izen horiek. Eta erabilera hori euskaraz zuzen bideratzea ere bada Euskaltzaindiaren xedea.

Euskal mendi-multzoen izenen tradizioa

Mendi-multzo “nagusien” zerrenda osatzeko, jatorri desberdineko tradizioak aztertu dira. Batetik, leku-izenen ikerketan ohikoa den legez, izen bakoitzaren herri-erabilera zein den bilatzeko saioa egin da. Leku zabal samarrak izendatzen dituztenez, oso ohikoa da mendi-multzoen azpiko herri batean nahiz bestean erabilitako identifikatzailea generiko hutsa izatea: *oihana*, *mendia*, *basoa*...; alegia, izen berezirik gabe. Beste kasu batzuetan, berriz, mendilerroen izenak

¹ Arau hauek argitaratu ditu orain arte Euskaltzaindiak arlo horretan:

45. araua: *Gure egitura politiko batzuen euskal izenez* (1995); 57. araua: *Euskal herrialdeen, herritarren eta euskalkien izenak* (1996); 92. araua: *Zuberoako herri izendegia* (1998) eta 99. araua: *Zuberoako herri eta herritarren izenak* (1999); 108. araua: *Lapurdiko udal izendegia* (2000); 122., 128. eta 133. arauak: *Nafarroa Behereko herri izendegia I, II eta III* (2001-2002, 2003, 2003); 139. araua: *Euskal Herria izena* (2004); 140. araua: *Gipuzkoako herri izendegia* (2004); 145. araua: *Bizkaiko herri izendegia* (2005); 150. araua: *Arabako herri izendegia* (2006); 155. araua: *Nafarroako udal izendegia* (2007-2009).

² 166. araua: *Euskal Herriko ibaiak* (2011); 199. araua: *Euskal Herriko kostaldeko leku-izenak* (2024).

oso ezagunak dira eta oso hedatuak daude, baita tokiko erabileran ere: *Aralar, Ordunte, Urbasa...*

Zerrenda osatzeko ezinbestean aztertu beharreko beste iturri bat geografiari dagozkion lanek osatzen dute, hala nola garai guztietako kartografiek edo hiztegi geografikoek. Era horretako makrolanek garrantzi handia izan dute leku-izenen hedatzean eta finkatzean. Zenbaitetan, ordea, geografoek nahiz kartografoek hautatutako izenak ez datoz bat herri-erabileran aurkitzen denarekin edo, besterik gabe, herriak ez du izan leku-izen horiek identifikatzeko beharrik, eta ez die izenik eman. Geografoek, ordea, beren arloaren begiradarekin aztertu eta “unitate geografiko” horiek modu batean edo bestean bataiatu dituzte, eta tradizio kartografikoa sortu dute, erakundeek bultzatuta nolabaiteko hedatzea lortu duena: *Euskal mendiak, Nafarroako Pirinioa*³... Mendi-multzoen izenen tradizio kultista esan lekiok horri, teknikari eta akademikoen egitekoak ekarritakoa.

Azkenik, bizibide tradizionalen urritzearekin, herritarrak gero eta gutxiagotan mugitzen dira Euskal Herriko mendietan. Abeltzaintza, baso-lanak, egurgintza... gero eta “industrializatuago” dauden jarduerak dira, eta herrietako jendeak ez du zertan jakin nola izendatzen diren mendi-multzoak, eta ez du behar handirik mendi-multzo horiek zehatz identifikatzeko. Bizibidea mendian zeukaten langileak desagertzeaz batera, kirol-jarduerak mendietan praktikatzen dituztenak gero eta gehiago dira. XX. mendearen hastapenetan lehen mendizaleak Euskal Herriko bazterrak bisitatzen hasi zirenean, artzain eta basoko langileei esker izan zuten aurkintza haien izenen berri. Baina, geografoek bezala, mendizaleek bestelako beharrak izaten dituzte mendi-multzoen identifikazioari dagokionez, eta, askotan, izendapen berriak, izen desitxuratuak edo nahastutako toponimoak erabili dituzte. Erabili ez ezik, hedatu ere egin dira izen horietako batzuk, zenbaitetan administrazioek ere bultzatuta: *Jatako mendigunea, Otsako mendilerroa, Uzturre-Ipuliño mendilerroa*... Tradiziorik gabeko era horretakoak ez dira arauan gehitu, baina, egoki eratuta baldin badaude, ez dira zertan baztertu edo arbuiaitu, arlo batean zein bestean erabilera beharrezkotzat joz gero.

³ Pluralean ere erabil daiteke. Izan ere, Euskaltzaindiak aspaldian arautu du *Pirinioak* izena, 52. arauan: *Munduko geografiako zenbait izen (mendiak, ibaiak, itsasoak)* (2010), eta 159.ean: *Europako toponimia fisikoa* (2009).

Mendi-multzoen izaera morfologikoa eta generikoak

Oso paisaia desberdinak dituen arren, esan ohi da Euskal Herria lurralde menditsu samarra dela. Hala ere, gure lurraldeek ez dute garaiera handirik: Nafarroako Pirinioko tontorrik garaienak ozta-ozta gerturatzen dira 2500 metroko mailara, ez gehiagora. Horregatik, “mendi-multzo” gisa zerrendatzen direnetako batzuk oso xumeak dira garaierari erreparatuta, baina, zer edo zerengatik hartakotzat identifikatuak izan baldin badira eta ezagun bilakatu badira, sartu egin dira zerrendan (*Arrola, Cábreja, Muskiritsu*). Beste batzuek, aldiz, garrantzi altimetriko nabarmenagoa dute eta inguruko herrietako biztanleen paisaian elementu nagusiak izaten dira, ondo identifikatuak eta izen ezagunekoak (*Aizkorri, Gorobel, Leire*).

Morfologiari dagokionez, mendi-multzoak izaera askotarikoak izan daitezke. Ohikoena izaten da unitate orografiko bereko mendi-tontorrek lerro bat osatzea, itxura lineala izatea, nondik norako zehatza, alegia. Halako kasuetan, *mendilerro* generikoa erabili ohi da, morfologia hori modu argian adierazi nahian. Era horretakoak dira, adibidez, *Abodi, Ordunte* edo *Toloño*.

Baina mendi-multzo guztiak ez dira horrelakoak. Zenbaitetan, mendi-tontor nagusi batean hasi eta norabide desberdinetan sakabanatzen dira hartatik behera doazen mendi-adarrak, haietako bakoitzean mendi-tontor gero eta apalagoak lerrokatzen direlarik. Halako mendi-multzoei ez zaie *lerro* osagaia ongi egokitzen, eta *mendigune* generikoa esleitzea hobetsi da. Adibide egokiak izan daitezke *Aldudeko mendiak, Arno* edo *Gorbeia* izenekoak.

Bestelako mendi-multzo batzuek mendigune nahiz mendilerro zenbaitetako mendiak hartzen dituzte. Nolabait, batasun orografiko batzuen elkartetzat har daitezke, izaera konplexuagoko multzotzat, eta badirudi halakoei ez zaiela *lerro* osagaia ongi egokitzen, baina *gune* ere ez da gertatzen behar bezain adierazgarria. Era horretako batzuk identifikatu dira arauaren zerrendan, eta *mendi-multzo* generikoa esleitu zaie; adibidez, *Durangaldeko mendiak, Ugatxa* eta *Ziertzoko mendiak* izenekoak.

Mendi-multzoen izenen berezitasunak eta aldaerak

Euskal Herriko mendi-multzo batzuk ondo identifikatuta daude: izen berezia eman zaie, izen hori mendi-multzoari dagokio, eta izen horrek identifikatzen duen

beste entitate geografikorik ez dago, non ez den haren eratorri edo erreferentzial bat. Era horretakoak dira, esaterako, *Árcena*, *Bosmendieta* edo *Labia*.

Maizenik, ordea, mendi-multzo bateko tontorrik garaiena izaten da haren identifikatzailerik ezagunena, eta mendi-multzoa hari erreferentzia eginik ezagutu ohi da. Halakoei *leku-izen erreferentzial* izendapena eman zaie, eta mendi-tontor nagusia da haien erreferentzia. Era horretakoak lirateke *Aizkorriko mendilerroa*, *Beriaingo mendilerroa* edo *Gorbeiako mendigunea*. Halako kasuetan, egokiak izan daitezke aldaera osoak, genitibo-markarik gabekoak (*Aizkorri mendilerroa*, *Beriain mendilerroa*, *Gorbeia mendigunea*) eta, erabilera-testuinguruaren arabera, eta nahasterako biderik ez baldin badago, erabilera sinpletua ere bai (*Aizkorri*, *Beriain*, *Gorbeia*), betiere kontuan izanda izen sinple horiek, berenez, mendi-tontorreiei dagozkiela eta testuinguruak argi utzi behar duela mendi-multzoez ari garela.

Badira zerrendan egitura bereko beste mendi-multzo batzuk erreferente gisa haien azpian dagoen edo egon den herria dutenak, hala nola *Billako mendilerroa*, *Iturrietako mendiak* edo *Raneroko haitzak*. Aurrekoetan bezala, kasu honetan erabilera sinpletua baliatzea egokia izan daiteke, baina beti jatorri duten herriarekin identifikazio-nahasterik ezin ekar dezakeen testuinguruan; alegia, argi utzirik mendi-multzoez ari garela eta ez herriez (*Billa*⁴, *Iturrieta*⁵, *Ranero*⁶).

Orobat iradokitzen da ezen, erreferentzia herria ez baina santutegi bat edo bestelako izaera geografikoko lekuren bat denean, era sinpletuak ere balia daitezkeela, aurrekoen baldintza berberetan. Adibidez, *Arantzazuko mendilerroa*⁷, *Arlabango mendiak*⁸ eta *Yugoko mendilerroa*⁹ izendapenen ordeztu, *Arantzazu*, *Arlaban* eta *Yugo*.

Erabilera sinpletu horri ez zaio egoki iritzi *Aldudeko mendiak*, *Durangaldeko mendiak* eta *Gasteizko mendiak* izenetan, *Aldude*, *Durangaldea* edo *Gasteiz*

⁴ Trebiñuko *Billa Tobera* herriaren gaineko mendilerro xumea.

⁵ *Iturrieta* izeneko herri itzaliaren inguruan, gaur Agurain udalerrikoa.

⁶ Karrantzakoa den *Ranero* auzoaren gaineko haitzak dira.

⁷ Oñatin dagoen *Arantzazuko Andra Mariaren* santutegi ezagunari erreferentzia egiten diona.

⁸ Araba eta Gipuzkoa artean dagoen *Arlaban* mendatearen izena erreferente gisa darabilena.

⁹ Arguedas udalerrian, Bardean dagoen *Yugoko Andre Mariaren* ermitari erreferentzia egiten diona.

erabiltzeak nahasterako bidea emango duelakoan ia beti, erreferente diren lekuak oso ezagunak edo eremu zabalekoak direlako¹⁰.

Zenbait kasutan, izen bat baino gehiago duten mendi-multzoak aurkitu, eta hala eraman dira zerrendara. Hala lerrokatu da, adibidez, Nafarroako *Andia* mendilerroaren izena *Andimendia* aldaera hedatuarekin batera, zeinak *mendi* osagaia ere aldean baitarama. Bizkaiko *Legarmendi* mendilerroa ere ondoan *Aramotz* daramala agertzen da zerrendan.

Arauaren edukia

Arau honetan, Euskal Herriko 103 mendi-multzo agertzen dira zerrendatuta. Zerrendako lehenengo zutabean, euskaraz haiek identifikatzeko proposatzen diren izendapenak agertzen dira. Mendi-multzo bakoitzerako proposatzen diren aukerak zehar-marraz bereizirik agertzen dira, eta bakoitzaren unean uneko egokitasuna aurreko atalean zehaztu da. Hortaz, erabiltzaileak hautatu beharko du une bakoitzean zein den aldaerarik egokiena: osoa, hedatua, sinplea...

Arreta berezia eman zaio leku-izenen mugatzaileen adierazpenari. Horregatik, bertsio bakoitzean agertzen da, hala dagokionean, izenaren ondoren “(-a)” edo “(-ak)” adierazpidea. Hala denean, leku-izenaren -a edo -ak amaierak mugatzaile arruntaren gisa jokatu behar dira. Oso argiak dira, adibidez, azken osagaia generikoa duten leku-izenak: *mendilerroa (-a)*, *mendigunea (-a)*, *mendiak (-ak)*...

Beste kasu batzuetan, analogiak edo osagaiaren gardentasunak iradokitzen du leku-izenaren amaieran dagoen bokalak mugatzaile-jokaera behar duela: *Andia (-a)*, *Arretxea (-a)*, *Atxarrea (-a)*, *Bizkaia (-a)*, *Harsüdürra (-a)*, *Mortua (-a)*, *Ugatxa (-a)*.

Azkenik, herri-erabilerak edota leku-izen eratorriek ematen dute amaierako -a batzuen izaeraren berri: *Aldaia (-a)*, *Itzina (-a)*, *Malloak*¹¹.

¹⁰ Hurrenez hurren, Nafarroa Behereko *Aldude* ibarra, Bizkaiko *Durangaldea* izeneko eskualdea eta Arabako hiriburua den *Gasteiz* dira erreferente ezagun horiek.

¹¹ Mugatzailearen oharra dutenen artean kasu-markak jasotzeko sistema erregularrak honako hauek dira:

- aurreko letra bokala denean: *Aldaia*, *Aldaiak*, *Aldaiarekin*, *Aldaian*..., baina *Aldaiko*, *Aldaitik*, *Aldaira*... (adibidez, -a itsatsidun *Gorbeia* izena: *Gorbeiako*, *Gorbeiatik*, *Gorbeiara*...).
- aurreko letra kontsonantea denean: *Harsüdürra*, *Harsüdürak*, *Harsüdürrez*..., baina *Harsüdürrean*, *Harsüdürreko*, *Harsüdürretik*, *Harsüdürreara*... (adibidez, -a itsatsidun *Arbaila* izena: *Arbailan*, *Arbailako*, *Arbailatik*, *Arbailara*...).
- plurala denean: *Malloak*, *Malloek*, *Malloentzat*, *Malloetan*, *Malloetatik*, *Malloetako*, *Malloetara*...

Bigarren zutabean, mendi-multzo bakoitzari esleitzen zaion generikoa agertzen da. Izen generiko hori hizkuntza estandarrari dagokio eta, nolabait, mendi-multzo bakoitzaren sailkapen formala ematen du aditzera, beste ezer baino gehiago. Izan ere, zenbait mendi-multzoren izenean generikoa ere agertzen da, eta ez da zertan bigarren zutabeko hori bera izan. Adibidez, *Aldudeko mendiak* edo *Raneroko haitzak* izenekoei *mendigunea* generikoa esleitu zaie, eta hori ez dago *mendiak* edo *haitzak* generikoekin kontraesanean.

Mendi-multzoak diren aldetik, gehienak eremu zabalean zehar hedatzen dira eta, ondorioz, lurralde batean baino gehiagotan daude. Eta horixe da zerrendan kokaeraz ematen den erreferentzia bakarra, hau da, bakoitza zein lurraldetan zehar hedatzen den.

Azkenik, zerrenden ondoren, Euskal Herriko mapa bat gehitu da, modu grafikoan zerrendako mendi-multzoen kokaera erakusten duena. Bakoitzaren garrantzi orografikoaren arabera, hiru neurriko letra-moldeak erabili dira izenak errotulatzeko.

EUSKAL HERRIKO MENDI-MULTZO NAGUSIEN IZENAK

ARAUZKO ERAK	GENERIKOA	NON
Abodi	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Aiako Harria (-a)	mendilerroa	Gipuzkoa - Nafarroa Garaia
Aialako mendilerroa (-a) / Aiala	mendilerroa	Araba
Aizkorriko mendilerroa (-a) / Aizkorri mendilerroa (-a) / Aizkorri	mendilerroa	Gipuzkoa
Alaizko mendilerroa (-a) / Alaitz	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Aldaia (-a)	mendilerroa	Araba
Aldudeko mendiak (-ak)	mendigunea	Nafarroa Garaia
Aloña	mendilerroa	Gipuzkoa
Altzania	mendilerroa	Araba-Gipuzkoa
Anbotoko mendilerroa (-a) / Anboto mendilerroa (-a) / Anboto	mendilerroa	Bizkaia
Andatzako mendilerroa (-a) / Andatza mendilerroa (-a) / Andatza	mendilerroa	Gipuzkoa
Anderejo	mendilerroa	Araba
Andia (-a) / Andimendia (-a)	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Aralar	mendilerroa	Gipuzkoa - Nafarroa Garaia
Arangio	mendilerroa	Araba
Arangurengo mendiak (-ak) / Aranguren	mendilerroa	Nafarroa Garaia

ARAUZKO ERAK	GENERIKOA	NON
Arantzazuko mendilerroa (-a) / Arantzazu	mendilerroa	Araba-Gipuzkoa
Arbailako mendigunea (-a) / Arbaila	mendigunea	Nafarroa Beherea - Zuberoa
Árcena	mendilerroa	Araba-Burgos
Areta	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Argaraietako mendilerroa (-a) / Argaraieta mendilerroa (-a) / Argaraieta	mendilerroa	Nafarroa Garaia - Zaragoza
Arkamo ¹²	mendilerroa	Araba
Arlabango mendiak (-ak) / Arlaban	mendilerroa	Araba-Gipuzkoa
Arno	mendigunea	Gipuzkoa
Arrato	mendilerroa	Araba
Arraturi	mendilerroa	Araba
Arretxea (-a)	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Arrigorrieta	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Arrola	mendilerroa	Araba-Bizkaia
Atuzkarratz	mendigunea	Nafarroa Garaia
Atzarreko mendigunea (-a) / Atzarrea mendigunea (-a) / Atzarrea (-a)	mendigunea	Bizkaia
Badaia	mendilerroa	Araba
Baigurako mendilerroa (-a) / Baigura mendilerroa (-a) / Baigura	mendilerroa	Nafarroa Beherea - Lapurdi
Benho	mendilerroa	Zuberoa-Bearno
Beriaingo mendilerroa (-a) / Beriain mendilerroa (-a) / Beriain	mendilerroa	Nafarroa Garaia

¹² Ahoskera: /ár.ka.mo/ behar du, azentua lehen silaban daramala.

ARAUZKO ERAK	GENERIKOA	NON
Billako mendilerroa (-a) / Billa	mendilerroa	Araba
Bizkaia (-a)	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Bosmendieta	mendilerroa	Zuberoa
Cábregako mendilerroa (-a) / Cábrega	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Doshermanas	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Durangaldeko mendiak (-ak)	mendi-multzoa	Bizkaia-Gipuzkoa
Elgeako mendilerroa / Elgea	mendilerroa	Araba-Gipuzkoa
Entzia ¹³	mendilerroa	Araba
Erreniegako mendilerroa (-a) / Erreniega mendilerroa (-a) / Erreniega	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Eskuaga	mendilerroa	Bizkaia
Esparazko mendilerroa (-a) / Esparatz mendilerroa (-a) / Esparatz	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Euskal mendiak (-ak)	mendi-multzoa	Araba - Bizkaia - Gipuzkoa - Nafarroa Garaia
Ganekogortako mendigunea (-a) / Ganekogorta mendigunea (-a) / Ganekogorta	mendigunea	Araba-Bizkaia
Gangurengo mendilerroa (-a) / Ganguren mendilerroa (-a) / Ganguren	mendilerroa	Bizkaia
Gasteizko mendiak (-ak)	mendilerroa	Araba
Gaubeako mendilerroa (-a) / Gaubea	mendilerroa	Araba
Gaztiburu	mendilerroa	Bizkaia
Gerinda	mendilerroa	Nafarroa Garaia

¹³ Araba aldeko ahoskera /én.tzi.a/ da, azentua lehen silaban daramala, eta Nafarroan /en.tzí.a/, azken-aurrekoan.

ARAUZKO ERAK	GENERIKOA	NON
Gibillo	mendilerroa	Araba
Gongolatz	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Gorbeia mendigunea (-a) / Gorbeia mendigunea (-a) / Gorbeia	mendigunea	Araba-Bizkaia
Gorobel	mendilerroa	Araba-Bizkaia-Burgos
Grumeran	mendilerroa	Bizkaia
Harsüdürre (-a)	mendilerroa	Nafarroa Beherea - Zuberoa
Hernioko mendigunea (-a) / Hernio mendigunea (-a) / Hernio	mendigunea	Gipuzkoa
Idokorri mendilerroa (-a) / Idokorri mendilerroa (-a) / Idokorri	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Illon	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Iturrietako mendiak (-ak) / Iturrieta	mendilerroa	Araba
Itzagako mendilerroa (-a) / Itzaga mendilerroa (-a) / Itzaga	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Itzina (-a)	mendigunea	Bizkaia
Izarraitz	mendilerroa	Gipuzkoa
Izki	mendilerroa	Araba
Izkoko mendilerroa (-a) / Izko	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Kodes ¹⁴	mendilerroa	Araba-Nafarroa Garaia
Labia	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Leartzako mendilerroa (-a) / Leartza	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Legarmendi / Aramotz	mendilerroa	Bizkaia

¹⁴ Ahoskera: /ko.dés/ behar du, azentua azken silaban daramala.

ARAUZKO ERAK	GENERIKOA	NON
Leia	mendilerroa	Bizkaia
Leire	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Lokiz	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Malloak (-ak)	mendilerroa	Gipuzkoa - Nafarroa Garaia
Mortuko mendiak (-ak) / Mortua (-a)	mendigunea	Nafarroa Garaia
Muskiritsu	mendilerroa	Gipuzkoa
Nafarroako Pirinioa (-a) ¹⁵	mendilerroa	Nafarroa Garaia - Zuberoa
Narbaxako mendilerroa (-a) / Narbaxa	mendilerroa	Araba
Oizko mendigunea (-a) / Oiz mendigunea (-a) / Oiz	mendigunea	Bizkaia
Ordunte	mendilerroa	Bizkaia-Burgos
Pagasarriko mendilerroa (-a) / Pagasarri mendilerroa (-a) / Pagasarri	mendilerroa	Bizkaia
Pagoeta	mendigunea	Gipuzkoa
Peñako mendilerroa (-a) / Peña	mendilerroa	Nafarroa Garaia - Zaragoza
Portillako mendilerroa (-a) / Portilla	mendilerroa	Araba
Raneroko haitzak (-ak) / Ranero	mendigunea	Bizkaia-Kantabria
Santxosoloko mendilerroa (-a) / Santxosolo	mendilerroa	Bizkaia-Burgos
Sarbil	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Sasiburu	mendilerroa	Bizkaia
Satrustegiko mendilerroa (-a) / Satrustegi	mendilerroa	Nafarroa Garaia

¹⁵ Pluralean ere erabil daiteke: *Nafarroako Pirinioak (-ak)*.

ARAUZKO ERAK	GENERIKOA	NON
Sierralonga	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Tabarko mendilerroa (-a) / Tabar	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Toloñoko mendilerroa (-a) / Toloño mendilerroa (-a) / Toloño / Cantabria	mendilerroa	Araba - Errioxa - Nafarroa Garaia
Tuyoko mendilerroa (-a) / Tuyó	mendilerroa	Araba
Ubal	mendilerroa	Bizkaia
Ugatxa (-a)	mendi-multzoa	Bizkaia
Urbasa	mendilerroa	Araba - Nafarroa Garaia
Uxueko mendilerroa (-a) / Uxue	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Yugoko mendilerroa (-a) / Yugo	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Zaraia	mendilerroa	Gipuzkoa
Zarikietako mendilerroa (-a) / Zarikieta	mendilerroa	Nafarroa Garaia
Ziertzoko mendiak (-ak)	mendi-multzoa	Nafarroa Garaia - Errioxa - Zaragoza

